

**ZURI DAGITZUT OIU**

«Lurralde oso au ondamendi izu-  
garri da izango» (Jer., 25, 4).

Barren-barrendik  
Zuri dagitzut  
otoitz biotzetikua.  
Artu belarriz,  
gure Jainko ona,  
zure semeon oiua.

Atzerritarrak  
gure-gureaz  
dira osorik jabetu...  
Zuk emon zeuskun  
lur-zati onen  
aurka jagirik indartsu.

Gure erruak, bai,  
aundiak dira,  
olan gu itxi ba'gaituzu...  
Lege-bidetik  
euskal erria  
al yatzu, Jauna, baztertu?

Zure itzak, Jainko,  
agiri danez,  
ez al ditugu nai entzun?  
Geure eskutiko  
txarto egiñez  
aurtiki al zaitugu urrun?

Ta itxusi xautu  
nai al gaituzu  
zeure erra aundiaren aundiz?

ta bedarra lez  
eratsi-azo  
zeure aoko ats-geziz?

Gugandik, ausaz,  
urrindu dozuz  
poz-oiu ta jrrintziak,  
kale-bideetan  
ta gau-jaietan  
zar ta gazteen abestiak?

Gure boluak  
ez ete dabe,  
gerorakoan, zaratarik?  
Gure kruseluk  
ez ete geigo,  
ez gau, ez egun, argirik?

«Niri entzungor,  
—Zuk diñoskuzu—  
legetik jun zarie urrin,  
nire artzaiñai  
t'esan leunai  
zakarki egiñik muzin».

Egi-egia;  
alan ta be Zuk  
errukia Zeugan dozu;  
eta zor-ordain  
txit ugaria,  
gaitza parkatzen dakizu.

Auspaz aurrean  
gaukazuz orain,  
ta ez gu itxi saietsera;  
entzun, bai, Jauna,  
atxilotuen  
zinkuriñak, damu-bera.

Lurperatu Zuk  
gure obena,  
uiol ez gaitazan biur;  
Zu zaitez, Jauna,  
gure abaro,  
pozaren izpi ta atsedeen-lur.

Bego mardulik  
oraindiño be  
euskal erriaren enda,  
Zu goretsiaz  
ta maitatuaz  
izan dagian nai dauna.

### KANPAIOTSA

Kanpai-ots ikaror, kanpai-ots garden,  
arraio durunduz or goian ozen,  
ez egik egundo dei ori eten.

Goiz-jaunak orduko illuna meetu,  
ik zoli diarduk ots ta durundu:  
otoitz-dei goiztarra an-or zabaldu.

Eguzkia garrez goira danean  
ta armindu ondoren urpe sartzean,  
asper barik ago ots bardiñean.

Ene kanpai maite, jarraitu intziriz,  
biotza bai daustak jgurtzen eztiz  
ta adía ixiotu eder-gai biziz.

Adur gaizto itzala yabilt ondorik,  
izar ta eguzki aiendu barik:  
baiña ik ba-dok naiko niretzat pozik.

Noizka, jaiezkoa dok jre otsa:  
urduri ta bizkor, didar bai litza,  
uri-basoetan azalduz poza.

Baita be, astiro, norbait jil bada:  
eresi eztia aur txiki dala,  
zarrik il ba'dadi, samin-dunbada.

Nik, alan be, beti, nai pozkor nai itun,  
i aut zintzoena espetxe-lagun:  
gau baltzez lastargi, nekean gardun.

### EZKER-MUTURRAKIN

Ezker-muturrakin txautu dot  
matrail-izerdia,  
beetik gora itsatsi yatan  
azal-kandu loaia.

Ta arri baten jesarrita,  
barne-min dantzari,  
begiak emon dautsodaz  
egin bideari.

Basarte: pozaren billa  
eldu naiz onera,  
ta zergaitik dot biotza  
triste, negarbera?

Beian lanari lotua,  
auldu naiz osoan;  
atseden eztia nai dot  
jxil-jarioan.

Zugat azpian erreka  
etenbako oslari,